

2024-2026 URTEETARAKO PLAN ESTRATEGIKOA

Osasuna bikaintasunerantz



Osakidetza

BARAKALDO-SESTAKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
BARAKALDO-SESTAO




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Aurkibidea

- 01** | Aurkezpena
- 02** | Helburua, Misioa, Ikuspegia eta Balioak
- 03** | Ildo estrategikoak, helburu estrategikoak eta ekintzak/proiektuak
- 04** | Eranskinak
Hausnarketa-prozesua
AMIA
Glosarioa



01

Aurkezpena

Joseba Julen Balletero Zárraga
Barakaldo-Sestaoko ES/ko Zuzendari Gerentea

Barakaldo-Sestaoko ES/aren 2024-2026 urteetarako plan estrategikoak etapa berri baten hasiera markatzen du. Bertan, hurrengo urteetan lortu nahi ditugun helburuak planteatu ditugu, Barakaldoko eta Sestaoko bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeko.


Hausnarketarako partaidetza-prozesu baten emaitza izan da; prozesu horrek erakundeko kide bakoitzak helburuak lortzeko martxan jarri beharreko lehentasunezko proiektuak identifikatzen lagundu zuen.

Hurrengo urteetako bidea markatuko digun erakundearen ibilbide-orria da. Barnean egindako hausnarketez gain, inguruko kanpoko agenteen iritziak jaso ditugu, eta horiek, beren eragina sortzeaz gain, gure ES/arekin lan egingo dute helburuak lortzen joan gaitzen.

Hausnarketa-prozesuaren emaitza gisa gure ES/aren helburua definitu dugu; misioa berrikusi dugu eta etorkizunerako ikuspegia eta helburuak lortzen lagunduko duten balioak berriro definitu ditugu.

Erakunde Sanitario Integratu hau osatzen dugun guztioi eskatzen dizuegu jarrai dezazuela egunero egiten dugun lanaz konprometuta eta ilusionatuta egoten; lan horri esker, herritarrei ematen diegun asistentzia sanitarioa "Osasuna bikaintasunerantz" bideratuko da.

02



Helburua

Barakaldoko eta Sestaoko herritarren bizikaltatea hobetzea osasun-arreta integrala ematearen bitartez.

Misioa

Osasun-arreta **integratua** ematea osasuna eta **prebentzioa sustatuz** eta gaixotasunak artatuz, osasun-sistema **jasangarria** bultzatuz, gizarteari balioa gehituz herritarrekiko modu **erantzunkidean** eta profesionalak **konprometituz** osasuneko emaitza onenak lortzera.

Ikuspegia

Pazienteek zein profesionalek hauengatik aitortzen gaituzten osasun-erakundea izan nahi dugu:

- *Arreta osoa, pertsonak erdigunean jartzen dituena.*
- *Etengabeko hobekuntzaren eta berrikuntzaren alde egitea.*
- *Hurbilekoa, **gizatiarra** eta konfiantzazkoa izatea.*
- *Modu **koordinatuan**, arinean eta efiziente*an kudeatzea.
- *Profesional **kualifikatuak** izatea, emaitzak hobetzen **inplikatur** daudenak.*

Balioak

01 GIZATASUNA: Errespetua, enpatia, komunikazio eraginkorra eta tratu pertsonalizatua ematen ditugu, pazienteen itxaropenak kontuan izanez eta erabakiak partekatuta hartuz.

02 TALDEKO LANA: Helburuak koordinatuta partekatzen ditugu diziplina anitzeko testuinguru batean, emaitza onenak lortzeko eta pertsonen partaide izatearen sentimendua indartuz.


03 JOKAERA ETIKOA: Etika pertsonalarekin eta asistentzialarekin konprometituta lan egiten dugu pazienteen eskubideak bermatzeko ekitatea, berdintasuna, aniztasuna eta gizarte-eta ingurumen- jasangarritasuna barne, eta gardenak gara kontuen berri ematen dugunean.

04 GAITASUN PROFESIONALA: Profesionalen potentziala beraien eta erakundearen arteko modu erantzunkidean garatzen dugu, parte hartzeko eta entzumen aktiborako lankidetz-espazioak sustatuz.



03

Uldo Estrategikoak, helburu estrategikoak eta ekintzak/proiektuak



6 ILDO
ESTRATEGIKO


28 HELBURU
ESTRATEGIKO

105 EKINTZA /
PROIEKTU



1. ILDO ESTRATEGIKOA

Osasuna **sustatzea** eta gaixotasunak **prebenitzea**, bizitzaren bilakaeraren ikuspegia txertatuz, parte-hartze aktibotik eta herritarren eta komunitatearen erantzunkidetasunetik.



1.1 Bizi-ohitura osasungarriak, zahartze aktiboa eta gaixotasunaren prebentzioa bultzatzea, Lehen Mailako Arreta indartzeko estrategia garatuz eta hedatuz, sektore anitzeko eta lankidetzako inguruneak sustatuz.

Ekintzak:

- »Gure ESla kerik gabeko osasun-erakundeen euskal sarearen arabera egiaztatzea.
- »Zahartze aktiboa sustatzeko programak martxan jartzea: erorikoak prebenitzeko tailerrak, zahartze osasungarria, etab.
- »Aho-hortzetako osasun-zerbitzuen zorroa zabaltzea: umeena (PADJ), haurdun dauden emakumeak, desgaitasuna dutenak, etab.

1.2 Erantzunkidetasuna, parte-hartzea eta koordinazioa sustatzea, osasuna prebenitzeko eta sustatzeko jarduerak eremu asistentzial guztietan hedatzeko, osasun publikoarekin eta komunitatearekin koordinatuta, kasu guztietan Lehen Mailako arreta buru dela, herritarrei mezu komun eta koherente bat helarazteko.

Ekintzak:

- »Herritarren artean medikamentuak arrazoiz erabiltzearen inguruko kanpainak egitea.
- »Amagandiko edoskitzea sustatzea.
- »Umeen obesitatea prebenitzeko eta umeen artean bizi-osasungarriko ohiturak sustatzeko jarduketak egitea.
- »Bizitzako etapa guztietan txertaketa-kanpainak bultzatzea.
- »Osasun Publikoarekin koordinazioa hobetzea komunitatean egin behar diren epidemiologia-kontrolako esku-hartzeetan.

1.3 Osasun komunitarioa sustatzea, herritarrek beren osasunaren kudeaketa autonomoenean eta gailu asistentzialen erabilera arrazionalen parte-hartze aktiboa izan dezaten lortzeko.

Ekintzak:

- »Osakidetzaren komunitateko esku-hartzeen estrategia berria hedatzea.
- »Komunitate-baliabideen mapaketa bukatu eta zabaltzea eta eskuratutako emaitzaren arabera, ohitura osasuntsuak sustatzeko programetara egokitzea.
- »ESla udalerrietako komunitate parte-hartzearen esparruan sustatzea.

1.4 Osasuna zaintzeari dagokionez, herritarren ahalduntzea bultzatzea.


Ekintzak:

- »Pazienteek eta langileek osasun-karpeta erabiltzea sustatzea.
- »Norbere burua zaintzeko eta ahalduntzeko programak garatzea: Paziente Aktiboa, Osasun Eskola, Kronik-On, etab.
- »Herritarren esperientziak sartzea eta detektatutako beharrak aztertzea.

2. ILDO

ESTRATEGIKOA

EAEko biztanleen bizi-kalitatean eta bizi-itxaropenean eragin handiena duen kronikotasunari eta morbiditateari heltzen aurrera egitea.



2.1 Pazienteen behar eta itxaropenei eta osasun-beharrei erantzutea ibilbideak, planak eta programa espezifikoak hedatuz.

Ekintzak:

- »Ibilbide korporatiboak hedatzen jarraitzea eta ibilbide berriak egiten eta hedatzen parte hartzea (bihotz-gutxiegitasuna, EPOC, diabetes mellitusa...), herritarren itxaropenak eta beharrak kontuan hartuta.
- »Gure ESIko Zaintza Aringarrien Plana Euskadi 2030eko Zaintza.
- »Plan Onkologikoaren hedapenaren aurrerapenean parte hartzea.
- »Larrialdiak baliabide egokienetara orientatzeko eta ekidin daitezkeen ospitaleratzeak murrizteko plana sortzea.
- »Osasun-arreta bermatzeko kontingentzia-plana sortzea.
- »Tokiko asistentzia-ibilbideak sortzen eta hedatzen aurrera egitea (lunbalgia, zerbikalgia, asma, aldaka haustea...).
- »Lehen Mailako fisioterapia sartzea mina arintzeko tokiko ibilbideetan.

2.2 Gizarte-, osasun- eta hezkuntza-sektoreen arteko koordinazioa indartzea haur eta gazteen kasuan, gaixotasun kronikoak dituzten pertsoneri arreta egokia emango zaiela bermatzeko.

Ekintzak:

- »Arreta sozio-sanitario pediatrikoko taldeak finkatzea.
- »Oinarrizko gizarte lanarekin Lehen Mailako arretarako unitateen arteko lana koordinatzea (lehen mailako arretako arreta sozio-sanitarioko taldeak).
- »Eskualdeko batzorde soziosanitarioaren eginkizuna eta egoitza-zentroekiko koordinazioa indartzea.
- »Kronikotasunen erizain pediatrikoen figura hedatzea: Pediatriako EPAK.

2.3 Lehen Mailako arretaren, akutuen eta azpiakutuen ospitaleen eta baliabide soziosanitarioen arteko koordinazioa hobetzea, asistentzia-mailen arteko trantsizioa hobetzeko.

Ekintzak:

- »Kronikotasunerako erizaintza-rol berriak hedatzen aurrera egitea.
- »Larrialdi-zerbitzuak ibilbide asistentzietan sartzea, eta Lehen Mailako arretarekin koordinazioa hobetzea.
- »Ospitaleko alden zainketen jarraitutasunean aurrera egitea, Lehen Mailako arretarekin koordinazioa bermatuz eta hobetuz eta laguntza-ibilbideen gomendioei jarraituz.
- »Azpiakutuen oheen kudeaketarako korporazio-plana hedatzea

2.4 Paziente kronikoei ematen zaien arreta hobetzea, informazioaren eta komunikazioaren tresnen eta teknologien erabilera finkatuz

Ekintzak:

- »Panel klinikoaren erabilera sustatzea.
- »EPOC, bihotz-gutxiegitasuna eta abar duten pazienteen urrutiko monitorizazioan aurrera egitea.
- »Profesionalen artean artatutako herritarren datu garrantzitsuen analisia sustatzea, hala, asistentzia hobetzeko.



3. ILDO

ESTRATEGIKOA

Emandako asistentzia sanitarioaren bikaintasuna lortzea humanizazioaren, balioan, kalitatean eta segurtasun klinikoan oinarritutako arretaren eta zaintzen bikaintasunaren bidez.



3.1 ESlaren humanizazio-estrategia garatzea, asistentzia humanizatuko eredu korporatibo baten hedapena, ebaluazioa eta aurrerapena ahalbidetzen dituena.

Ekintzak:

- »Humanizazioko korporazio-estrategia hedatzea, ekintza-plan propioa garatuz.
- »Gure ESlaren prozeduretan eta protokoloetan aniztasun-ikuspegia sartzea: mugikortasun-arazoak dituztenak, hizkuntzarekin lotutakoak, genero-identitatekoak...
- »Espazioak humanizatzea intimitatea, erosotasuna, irisgarritasuna eta abar sustatuz.
- »Boluntarioen elkarrekin lankidetzak sustatzea nahi ez den bakardadea gutxitzeko borrokan.

3.2 Balioan oinarritutako arreta hedatzea pazienteentzako garrantzitsuak diren osasun-emaizak hizpide harturik, beraien partaidetza aktiboarekin eta hori lortzeko kostua neurtzea.

Ekintzak:

- »Balioaren korporazio-estrategia hedatzea, paziente zein profesionalak sentsibilizatuz.
- »Korporazio-mailan definitutako balio-estrategiaren adierazleak monitorizatzea.
- »Asistentzian pazienteen ikuspegia sartzea sustatzea (ibilbideak, zirkuituak, etab.).
- »Prozesu/gaixotasuneko kostuak ebaluatzeko sistema hedatzea

3.3 Zaintzen bikaintasunean aurrera egitea.

Ekintzak:

- »Zaintzetan bikaintasun-kultura sustatzea eta hautagaitzak aurkeztea BPSOn, Sumamos Excelencian eta abarrean.
- »Zaintzetan etengabeko hobekuntza bultzatzea.
- »Adierazleen jarraipena eta ebaluazioa sustatzea

3.4 Pazienteen segurtasun-kultura bultzatzea, emandako osasun-arretari lotutako arriskuak gutxitzeko helburuarekin.

Ekintzak:

- »SNASPen erabilera sustatzen jarraitzea eta lehentasunezko arloan segurtasun-taldeak sortzea eta segurtasun-kultura bultzatzea.
- »Lehen, bigarren eta hirugarren mailako biktimei arreta emateko protokoloa sortzea.
- »Herritarrak beren segurtasunean inplikatzeko kanpainen aurrera egitea.
- »Asistentzia sanitarioari lotutako infekzioak prebenitzeko proiektuak finkatzea (PVPCIN).
- »PROA proiektuak sustatzen jarraitzea.
- »Medikamentuen erabilera segurua sustatzeko ekintzekin jarraitzea.
- »Prozesu kirurgikoen segurtasunean aurrera egitea, segurtasun kirurgikoa egiaztatzeko zerrenda eta markatu kirurgikoak hobetuz.

3.5 Kalitate asistentzialaren bikaintasuna bilatzean etengabeko hobekuntza zikloak sartzea.

Ekintzak:

- »Gure ESlan lehenetsitako MAPAC gomendioak hedatzea eta sentsibilizatzea.
- »Mina arintzen hobetzeko estrategian aurrera egiten jarraitzea.
- »Profesionalek aginte-koadroak erabiltzen aurrera egitea.
- »Kanpoko ebaluazio-ereduen bitartez ziurtatzea sustatzea (SEMI humanizazioa, Qualiscopia, etab.).

3.6 Pazienteen hizkuntza-eskubideen errespetuan aurrera egitea.

Ekintzak:

- »Euskararen erabilera bermatzea eta euskaldunei arreta euskaraz ematea
- »Pazienteei ematen zaien dokumentazioan elebitasuna sustatzea.



4. ILDO

ESTRATEGIKOA

Iraunkortasuna, emaitza onenak eta kontu-ematea bermatuko dituen **governantza-eredua** finkatzea, egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko.

4.1 Asistentzia-gaitasuna optimizatzea, asistentzia-behar berrietara egokituz.

Ekintzak:

- »Gaitasun asistentziala berriro dimentsionatzea, asistentzia-kontsulta guztiak hobetzeko benetako beharren arabera.
- »Lehen Mailako arretaren eta Ospitale-Arretaren arteko deribazio-zirkuituak berrikusi eta egokitzea, alderdi biek adostutako protokoloekin bat etorriz eta deribazio efikaza egiteko helburuarekin.
- »Kirurgiako itxarote-zerrendaren eta kanpo-kontsultetako itxarote-zerrendaren kudeaketa hobetzeko talde korporatiboetatik eratorritako ekintzak hedatzea.
- »Kanpo-kontsulten eta eguneko ospitalearen arteko erantzun azkarreko zirkuituekin jarraitzea.

4.2 Kudeaketa-eremu guztietan efizientzia hobetzea: Asistentziala, ekonomiko-finantzarioa eta giza baliabideak

Ekintzak:

- »Unitate, zerbitzu eta prozesuetan kontabilitate analitikoa sartzea.
- »Zerbitzu asistentzialen eta ez asistentzialen prozesuak eta prozedurak indartzea, langile-kopurua benetako beharretara egokituz eta langileen absentiak eta ebentualtasunak planifikatuz.
- »Erosketak kudeatzeko prozedurak eguneratzea, dagozkien batzordeak sustatuz eta unitateen araberrako erreserba-plana sortuz; stock-ak kudeatzea.
- »Kostua-eraginkortasuna ikuspegiarekin proiektu berriak analizatzea.
- »"0 paper" plana sortzea.

4.3 Erantzukizun sozialak gure ESlan duen eragina eta Garapen Jasangarrirako Helburuetan (GJH) duen eragina indartzea.

Ekintzak:

- »Hondakinak kudeatzeko prozedurak berrikusi eta egokitzea eta ESlaren Ingurumen-Kudeaketako plana doitzea.
- »Plan estrategikoak 2030 Agendako GJHekin duen lotura aztertzea.
- »Genero-ikuspegia sistematikoki txertatzea prozesu asistentzialen emaitzen diseinuan eta ebaluazioan.

4.4 Sistemaren eraginkortasuna hobetzea, azpiegiturak eta teknologia eguneratuz eta modernizatuz.

Ekintzak:

- »Inbertsio/berrikuntza teknologikoaren plana eguneratzea (urtean behin).
- »Espazioen plan zuzentzailea sortzea eta eguneratzea (bi urtean behin).

4.5 Iraunkortasunera, kontuak ematera eta osasun-emaizta onenak lortzera bideratutako kudeaketa-eredua finkatzea.

Ekintzak:

- »Kudeaketa aurreratuaren eredian aurrera egitea, Osakidetzaren jarraibideak betez.
- »ESlaren unitateak analizatzea, akreditazio teknikoetan aurrera egiteko.
- »Arriskuen kudeaketa-eredua garatzea, Osakidetzaren jarraibideak betez.
- »ESlaren gizarte-erantzukizunaren memoria egitea, gizartearekiko konpromisoa zehaztuz.
- »Kudeaketarako metodologia eta tresna berriak sartzea: ESlaren urteko kudeaketa-plana agintekoadroarekin, kudeaketa-kontrolarekin eta abarrekin batera.

4.6 ESlaren eta barneko zein kanpoko interes-taldeen arteko harremana indartzea, horiek gobernu onean txertatzeko.

Ekintzak:

- »Gizarte Kontseilua garatzea, Osakidetzaren jarraibideak betez.
- »Hirugarrenetikiko harremanen esparrua zehaztea eta hirugarren sektoreko enpresekiko aliantzen kudeaketa, boluntariotzaren kudeaketa eta abar sistematizatzea.
- »Komunikazio-plana eta korporazio-irudia berrikustea, Osakidetzaren jarraibideak betez.



5. ILDO

ESTRATEGIKOA

Osasun emaitzekin eta jakintza sortzarekin pertsonak konprometitzea, taldean lan eginez.

5.1 Giza baliabideen egitura egungo eta etorkizuneko behar asistentzialetara egokitzea.

Ekintzak:

- »Plantillen tamaina eta profilak berrikustea.
- »Antolaketa-mekanismo eta -formula berriak definitzea eta hedatzea, hala nola telelana, lan-malgutasuna eta erakundeen arteko Kudeaketa Klinikoko Unitateak, lana eta familia bateragarri egiteko eta sareko lana errazteko, profesionalen arteko sinergiak bateratuz, helburu komunak hobeto lortzeko.
- »Lanpostu kritikoak definitzea eta kontingentzia-plana sortzea.

5.2 Helburuak betetzea sustatzen duten liderrak garatzea sustatzea.

Ekintzak:

- »Liderrak eta sortzen ari diren liderrak hautatzea eta trebakuntza hobetzeko prestakuntza ematea.
- »Osakidetzaren lidergo-eredua hedatzea.

5.3 Pertsonen harrera, parte-hartzea, entzute aktiboa eta aintzatespena errazten duten tresnen erabilera sistematizatzea, haien eta erakundearen beraren gogobetetasuna eta konpromisoa hobetzeko.

Ekintzak:

- »Langileen, ikasleen eta agintarien harrera eta agurtze plana berrikustea, taldeetara errazago integratu daitezen.
- »ESlaren planetan profesionalen parte-hartze eta entzute aktiboa garatzea, ESiko profesionalen arteko topagune berriak indartzuz, komunikazioa eta elkar ezagutzea errazteko.
- »ESlaren aitortza-plana berrikusi eta garatzea.

5.4 Ezagutzak eredu formal eta eraginkor batean transferitzea sustatuko duen ezagutzaren kudeaketa-eredu bat garatzea.

Ekintzak:

- »Banakako eta taldeko ezagutzaren kudeaketa-eredua zabaltzea, Osakidetzaren jarraibideak betez.
- »Ezagutza zabaltzeko jardunaldietako asistentzia sistematizatzea.
- »Etengabeko prestakuntza bultzatzea, prestakuntza-planean eta detektatutako beharretan oinarrituta.
- »Lanpostuko prestakuntza berriro definitu eta diseinatzea.
- »Saio teknikoak eta klinikoak eta langileen heziketa-lana sustatzea.

5.5 Lan-inguru erakargarria eta osasungarria erraztea berdintasuna eta zaintza sustatuz, pertsonen ongizatea lortzeko.

Ekintzak:

- »Osakidetzaren Berdintasun-Plana ESlan garatzea.
- »Langileen segurtasuna eta osasuna hobetzea, lan-inguru osasungarria lortzeko.
- »"Profesionalen esperientzia" analizatu eta hobetzea.
- »Proiektuak sustatzea ESiko pertsonen ongizatea bultzatzeko.

5.6 Euskararen erabilera lan-hizkuntza gisa aktiboki sustatzea, Euskara Plana hedatuz.

Ekintzak:

- »Erakundeak euskara-plana garatzea.
- »Bideak sortzea langileek beren lana euskaraz egin eta hobetu dezaten.



6. ILDO

ESTRATEGIKOA

Berrikuntzan eta ikerketan laguntzea, osasun-prestazio abangoardista eta kalitatezkoa bermatzeko.

6.1 ESlan Berrikuntza-Plana hedatzen aurrera egitea.

Ekintzak:

- » Berrikuntza-planaren hedapena indartzea.
- » ESlaren ideiak jasotzeko zirkuitua ezagutaraztea.
- » IIS BioBizkaiarekin lan egitea erraztailea den heinean, proiektu berriak garatzeko.
- » ESlan proiektu-zorroa finkatzea, horien jarraipena errazteko.
- » Berrikuntza-Estrategia txertatzea zerbitzuen eta LMAUen kudeaketa-konpromisoetan.

6.2 Berrikuntza- eta ikerketa-kultura sustatzea.

Ekintzak:

- » Inplikaturako barneko eta kanpoko eragile guztiak barne hartuko dituen berrikuntza- eta ikerketa-kultura bultzatzea.
- » Oinarrizko prestakuntza bultzatzea ikerketan.
- » Nursing Research Challenge proiektua finkatzea.
- » Zaintzei buruzko ikerketa-ildoak garatzea.

6.3 Online egiten diren prozesuen eraldaketa digitalean lan egitea korporazioaren eraldaketa digitalaren estrategiarekin.

Ekintzak:

- » Panel kliniko eta "time-line" erabiltzea sustatzea.
- » ESlan dermatoskopia bultzatzea.
- » Hitzorduak gogorarazteko SMS mezuen bidalketa finkatzea.
- » Kirurgia-prozesuetan pazienteen jarraipen-programa ezartzea: KIRUtrack.
- » Lehen Mailako Arretan ekografiak sustatzea.
- » Maletatxo digitala ezartzea Lehen Mailako arretako etxeko oharrentzat.

6.4 Ikerketa- eta berrikuntza-proiektuetan eskuratutako emaitzak asistentziara transferitzen aurrera egitea.

Ekintzak:

- » Osasun-zentro guztietara zabaltzea San Bizente osasun-zentroan pilotatu den amagandiko edoskitze-eredua.
- » Praktika onak beste testuinguru batzuetara zabaltzea ahalbidetzen diguten emaitza oneko proiektuak identifikatzea.

Eranskinak

04




1. ERANSKINA:

Hausnarketa estrategikoko prozesua

GOGOETA ESTRATEGIKOAREN FASEA

Abendua	<ul style="list-style-type: none"> • Sarrera-datuak jaso • Metodologia prestatu
Urtarrila	<ul style="list-style-type: none"> • EDA bilerak • Lan-talde operatiboaren dinamika prestatu (MI) • Eragile giltzarrien galdetegiak sortu: profesionalak eta kanpo-aliantzak
Otsaila	<ul style="list-style-type: none"> • Lan-talde operatiboaren bilera • Eragile giltzarrien galdetegiak bidali: profesionalak eta kanpo-aliantzak • Gogoeta estrategikokoaren informazioa aztertu
Martxoa-Apirila	<ul style="list-style-type: none"> • Informazioaren azterketa amaitu: EDA bilera • PE zirriborroa sortu • Aginte-koadroa egin
Apirila	<ul style="list-style-type: none"> • 2024-2026 PE itxiera • Komunikazioa planifikatu
Maiatza	<ul style="list-style-type: none"> • Zabalkundea / komunikazioa • Helburuak jakinarazi unitate eta zerbitzuetan • Kudeaketa-Plana egin
Uztaila	<ul style="list-style-type: none"> • Jarraipena

2.ERANSKINA: AMIA



3.ERANSKINA: ***Glosarioa***

BPSO	Best Practice Spotlight Organizacions (Zaintzen bikaintasunarekin konprometitutako zentroak).
OZ	Osasun-zentroa.
AMIA	Ahulguneak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak (horien analisia).
EDA	Zuzendaritza-talde zabaldua.
EPAK	Kronikotasunaren arloko praktika aurreratuko erizaina.
EPOC	Biriketako Gaixotasun Buxatzaile Kronikoa.
IIS	Ikerketa Sanitarioko Institutua.
IE	Ildo Estrategikoa.
MAPAC	Praktika asistentzial eta klinikoaren egokitzapena hobetzea.
MI	Erdi-mailako arduradunak.
GJH	Garapen Jasangarrirako Helbururak.
PADI	Haurren hortzak zaintzeko plana.
PE	Plan Estrategikoa.
PROA	Antibiotikoak Gutxitu eta Optimizatzeko programa.
PVPCIN	Infekzio Nosokomiala Zaintzeko, Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Plana.
SEMI	Barneko Medikuntzaren Espainiako Elkarte.
SNASP	Pazientearen Segurtasunaren gaineko Jakinarazpen eta Ikaskuntza Sistema.
LMAU	Lehen Mailako Arretako Unitatea.



Osasuna bikaintasunerantz
